A.B.E.

Amara Berriko egunkaria

65 zb.

www.amaraberri.org
abcomenius@euskalnet.net

2006ko Apirilaren 5a, asteaskena.

editoriala

Kaixo lagunak. Gu Jose Mari, Luken, Sara eta Jara gara. Espero dugu A.B.E hau gustatzea eta irakurtzen ari zaretenean ondo pasatzea. Beno usten dizuegu super A.B.Earekin. Beno agur benur eta jan jogurt.

Erredaktoreak

Jose Mari,,Luken,Sara eta Jara.

Eklipsea

Martxoaren 29an eguzki eklipse partziala egon zen. Denera 2 ordu iraun zituen. Euskal herrian oso gutxi ikusi ahal izan zen baino Turkian eta Libian oso-osorik ikusi zen.Oso polita izan zen 4 minutu iraun arren.Fenomeno natural hau ilargiak eguzkia tapatuz, lurrari itzala ematen diolako gertatzen da.



Loiola auzoa.

Irekitzear da Loiola auzoko atari eder berria. Uholdeak sahiesteko hodia jarri dute plaza azpian eta goikoaldean egin beharreko lanak bukatu bezain azkar bertako bizilagunak plazara itzuli ahal izango dute. Berez, lanak bukatzeko aurreikusitako epea aspaldi pasatu zen, baina joan den udazkenean Urumean lur azpiko tunela egin zen eta ondorioz, Atari Eder plazan egin beharreko lanak ezin izango dituzte zeharo bukatu makina hori konpondu arte.

aurkibidea

1.- PORTADA: Loiola auzoa eta eklipsea
2.- INKESTA: Kike Diaz de Radari.
3.- SASKI NASKI:SENTZAZIO ZIRARRAGARRIAK
4.- LUMAREN KILIMA:Deskribapen majikoa.
5.- GU ERE IDAZLE:Kontzertua.
6.- ENTRETENIGARRIAK:Sopa de letras.

Gure eskola

IRAKASLE BERRIA

Softbolleko irakasle berria etorri da eta Ricardo izena du.Bere klaseak oso dibertigarriak dira.

elkarrizketa

Kike Diaz de Rada

1-Zenbat urte daukazu?

46 urte ditut.

2-Ze urtetan jaio zara?

1959 urtean jaio naiz.

3-Anai arrebak ditzu?

Bai. Hiru gara.2 mutil eta neska 1.

4-Nola deitzen dira?

Mutila Manolo deitzen da eta neska Cristina.

5-Emakumerik duzu?

Bai.

6-Nola ezagutu zenuen?

Bartzelonan ikasten ari nintzela..

7-Zer egiten zenuen aisialdian?

Bolerara jolastera joaten ginen

8-Ona zinen boleran?

Bai.

Sentsazio zirarragarriak

FAMILIA GABEKO UMEA

Kalean zehar nabil pasiatzen eta bat-batean ume bat familia gabekoa zikin eta negarrez. Nire amari galdetu diot zergatik ez dagoen aita –amarekin.
-Galduko zen nonbait, segurazki – esan zuen.
- Ez dut uste. Familia gabekoa izango da?
-Ez!!- era bat harrituta, nire amak.
Baten semea izango da.– Hara! Umea gizon baten gana doa!-esan nuen.
-Aita-aita !!! esaten zuen pozez zoratzen. Bere malkoak ez ziren penarengatik.

Mikel Suso

Iumaren kilima

Deskribapen majikoa

Pilota txuri batean sartuta nago. Pilota honetan egun bat iraun dut eta bat-batean pilota puskatzen hasi da. Pilotatik atera naiz eta baso ilun batean nagoela konturatu naiz.

Leku ilun hau, zuhaitzez beteta dago. Zuhaitz guztiak beltzak dira. Lurra txuria da. Zuhaitzetan pilota txuri asko daude itsatsita. Bat-batean inurrien antzeko animali itsusi batzuk hurbiltzen zaizkit. Ni oso beldurtua nago, eta korrika hasten naiz. Animali itsusi hauek toki guztietan daude eta pilota txuriak zuhaitzetan itsatsita daude toki guztietatik. Oso izututa nago, baina nik korrika jarraitzen dut. Bat-batean gauza handi batzuk, pintxo garden batzuk neri eraso egitera datozkit. Ze beldurra!! Nik korrika jarraitzen dut eta beste baso bat ikusten dut. Beste basoak zuhaitz horiak ditu. Lasaiago ematen du. Salto handi bat emango dut beste basora pasatzeko. Bat, bi eta hiru!! Ai!! Erori egin naiz!!

- Non nago?
- zer naiz?

KIRA ETA IRIS

Gu ere idazle

Kontzertua

Egun batean kontzertu bat eman behar zen, kontzertua oso goiz izan zen.
Kontzertuan jende asko zegoen denak noiz hasiko zain.
- Orain kontzertua hasiko da...
Esan zuen aurkezleak.
Orkestakoak azaldu ziren, baina, haserre aurpegiarekin. Publikoa konturatu zen orkestari guztiak hitzegiten zeudela, horregatik beraiek ere hitzegiten hasi ziren baina gero ikusi zuten ez zutela musikarik jotzen eta hau esaten zutela:
- Nork hartu du nire arkua?!
- Nork aldatu dit partituraz?!
Eta horrela kontzertu guztia kexaka.
Publiko guztia etxera joan zen azkenean, aspertuta.

Amaia Diaz

Eguraldia

XIRIMIRI

Momentu honetako tenperatura: 18º
Atzoko tenperaturarik beroena: 28º
Gau honetako tenperaturarik hotzena: 16º
Zerua: Lainotuta
Lurra: Bustita
Haize mota: Barea ez da sumatzen
Norabidea: Ez dago
Euri mota: Xirimiri

Esaera zaharra: Goiz gorri laister euri

A.B.E. hitza aurkitu
(portadakoak ez du balio.

entretenigarriak

Sopa de letras

L	O	M	B	R	I	Z	B	L	N
I	A	H	C	U	M	P	L	I	R
M	E	O	A	M	P	O	L	L	A
P	K	M	H	S	O	M	B	R	A
I	T	B	C	P	S	R	S	I	O
O	R	R	M	J	I	C	V	D	G
G	O	E	U	Q	B	F	H	I	J
Y	M	B	L	F	L	T	K	E	X
A	P	Z	S	I	E	M	P	R	E
D	A	T	R	O	M	P	E	T	A

Antes de P y B siempre se escribe M.
En esta sopa de letras he escrito diez palabras que cumplen la norma ortográfica que pone arriba y tu tienes que encontrarlas.
¡ADELANTE!